

Berdintasunean

Hezten



Berdintasunean Hezten. Haur Hezkuntzarako gida

Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren laguntzaz FTE-UGTK egindako programa

Egileak

Alicia Herranz Gómez. Maistra Haur Hezkuntzan

M^a Belén San Martín Horcajo. Maistra Haur Hezkuntzan

Nona Seijo Cabrera. Maistra Haur Hezkuntzan

Mauricio Maggiorini Tecco

FETE-UGT

Emakumearen Institutuaren lankidetzarekin

Irudiak: Mauricio Maggiorini (barnea) eta Mónica Carretero (azala)

Itzulpena: Roberto Casas Andrés

Edizioaren Koordinatzailea: Sendra Ros Escanez


Sturkibidea

1.	Jardueraren fitxa	5
2.	Jardueraren fitxa	7
3.	Jardueraren fitxa	9
4.	Jardueraren fitxa	11
5.	Jardueraren fitxa	13
6.	Jardueraren fitxa	15
7.	Jardueraren fitxa	17
8.	Jardueraren fitxa	19
9.	Jardueraren fitxa	21
10.	Jardueraren fitxa	23
11.	Jardueraren fitxa	25



1. Jarduera

Marratz ezazu zure erretratu



1. Jardueraren fitoa

Argazki-markoa

Materialak:

- Ezko-koloreak.
- 1. jardueraren markoaren diseinua inprimatua duen kartoi mehe bat.
- Paperezko orri bat.
- Kolorezko tenperak.
- Kolorezko arkatz eta errotuladoreak eta margotzeko bestelako materialak.

Jarduerari sarrera:

Jaiotzetik, hurrek dituzten aukera desberdinak determinatzen dituena inguru da, sexuaren arabera. Izan ere, umea neska edo mutila den, kolore bat edo beste bat aukeratzen diogu, berarekin erlazionatzeko era desberdina da eta bere gustuak eta hobespenak bideratzen ditugu. Haurrak emakumea eta gizona izateko modu kontaezinak daudela jabe daitezten eta, desberdintasunak baloratuz eta askatasunez adierazteko modua aurkitzen ikasiz onartuta sentitzeko estereotipo motaren bat erreproduzitzeko edo bere sexua ez denaren itxurak egiteko beharra sentitu gabe, nolakoak diren adieraz dezaten saiatuko gara jarduera honen bitartez.

Helburuak:

- Umea izateko modu determinatu bakar bat ez dagoela azalduko dugu.
- Bakar-bakarrak, orijinalak eta bereziak direla senti dezaten saiatuko gara. Haien diren bezala, neska edo mutila izateagatik mugarik gabe, adieraztea, sentitzea eta aritzea aberastasun handia da.
- Neskek eta mutilek eskubide, aukera eta betebeharrak berberak dituztela ulertzen lagunduko diegu.
- Era baketsu eta begirunetsuaz, norberaren izaera, gustuak, adierazteko erak eta zaletasunak errespetatuz, ikaskideekin erlazionatzen irakatsiko diegu.
- Umeak zoriotsu eta onartuak, diren moduan, egiten dutenarekin eta euren gustukoena ez denarekin, senti daitezten saiatuko gara.

Jardueraren garapena:

1. Fitxak banatzea.
2. Ikasle bakoitzari eskatzea bere erretratua egin dezala.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Konturatu al zarete pertsona guztiok sudurra, ahoa eta belarriak ditugula? Eta, hala ere, guztiok marraztu dugu geure burua oso era desberdinez. Zuen ustez, zergatik gertatu da hori?
- Zer gertatuko litzateke pertsona guztiok berdin-berdinak bagina?
- Zein desberdintasun dago neska bat eta mutil baten artean? Dibertigarria izango litzateke guztiok berdin-berdinak bagina?

Beste jarduera batzuk:

1. Biribilean jesarrita klasekoen iritziak bateratuko ditugu eta neska edo mutila izateak esan nahi duenari buruz mintzatuko gara.
2. Besarkatzera jolasten.
Ikasleak gelatik paseatzen dira. Keinu bat egitean ezaugarri berberak dituzten ikaskideak besarkatu behar dituzte.
Adibidez: Begi marroiak dituzten neska eta mutil guztiak!!!
Gorria den zerbait duten neska-mutil guztiak!!!
3. Nola sentitzen garen esaten digu gure gorputzak. Nola sentitzen garen adierazten duten gorpuz-atalak (ahoa, begiak...) paper jarraituan marrazteko eskatuko diegu gure ikasleei.
4. Gorputzari zerbait gertatzen zaionean haren erreakzioei buruz hitz egingo dugu. Mutikoen eta neskatoen erantzunak konparatuko ditugu. Esate baterako: hotzak gaudenean, beldur garenean...



2. Jarduera

Lotu objektuak pertsonaiekin marra baten bidez



2. Jardueraren fitoa

Gure egin batzuk

Materialak:

- Kolore ezberdinezko errotuladoreak.

Jarduerari sarrera:

Gehienetan estereotipo sexistei dagozkien bezala jokatzera bideratuta daude ikasleak. Aukera guztiak azter ditzaketela jabetzea funtsezkoa da haientzat. Horregatik, biolentziarik gabeko era guztietako jokoak, materialak, jantziak eta guneak haiek edukitzea garrantzizkoa da.

Helburuak:

- Bereziki neskei edo mutilei dagozkien jolas edo ekintzarik ez dagoela uler dezaten.
- Bakoitza bere gustu, itxaropen eta lehentasunekin ziur egon dadin saiaturako gara.
- Dazkaten aukera guztiak baloratzen lagunduko diegu, norberaren berezitasunen arabera.
- Pertsona guztiok desberdinak garela eta pertsona batzuk gauza batzuetarako trebeagoak izan arren denak baliotsuak garela ulertzen lagunduko diegu.

Jardueraren garapena:

1. Fitxa banatzea.
2. Objektu bakoitza pertsonaiekin lotzea eskatzea.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Zer nolako gauzak egitea duzu gustuko?
- Eta mutilak diren zure lagunek?
- Eta neskak diren zure lagunek?
- Korrika eta salto egin, jolastu, irakurri, dantzatu edota mintzatu ahal gara guzti-guztiok?
- Elkarrekin jolasten al dute zure lagunek?
- Norekin nahiago duzu jolastu?

Beste jarduerara batzuk:

1. Biribilean jesarrita norberak bere zaletasun gustukoenak komenta ditzan. Adierazpen bakoitza bukatzean hauxe galdetuko dugu: beste mutilen bati ere gustatzen zaio hau egitea? Beste neskaren bati ere gustatzen zaio hau egitea? Eta neskei edo mutilei soilik dagozkien jarduerarik ez dagoela komentatzen dugu. Guztiok egin dezakegu gehien gustatzen zaiguna. Esaterako, ikasle batek komenta dezake: "Niri korrika egitea gustatzen zait". Eta galde dezakegu: Zein mutilek dute gustuko korrika egitea? Zein neskek?
2. Nola egin oso ondo dakiten zerbait berezia orri batean marraztea eskatuko diegu. Adibidez, neska batek oso altu egin dezake salto edo mutil batek biribilak eginez dantzatzen jakin. Jarraian marrazkia beste pertsona batekin trukitzea eskatzen diegu. Biribilean jesarrita bakoitzak azalduko du zein marrazki eman dioten eta zergatik den berezia.



3. Jarduera

Hus itzazu arretaz pertsonaia hauek. Itxeratu zure familiaren antzekoenak eta koloretan itzazu



3. Jardueraren fitoa

Era askotako familiak daude

Materialak:

- Orri zuri bat.
- Kolorezko arkatzak.
- Artaziak.
- Kola.

Jarduerari sarrera:

Familia eredu oso sakonki bilakatu egin da azken urteotan. Hori dela eta ikasgela batean aniztasun handia aurki dezakegu. Ikasleak aukera guztiak bidezkoak direla konturatzea eta ikasleen zaintza eta garapen pertsonalean familiak duen garrantziaz jabetzea da aktibitate honen helburua.

Helburuak:

- Familia eredu batzuk aztertuko ditugu jarduera honen bitartez. Horrela ikasleek bizidiketza-harremanen ikuspegi osoagoa izango dute.
- Familiaren funtzioak zeintzuk diren ulertzen lagunduko diegu gure ikasleei.
- Familiaren testutiguruan zaintza, afektu eta euspen-lanen garrantziari buruz hausnartuko dugu.

Jardueraren garapena:

1. Pertsonaiak marrazatuta dituen orria emango diegu ikasleei, euren familien antzekoenak diren pertsonaiak aukera ditzaten.

2. Aukeratutako pertsonaiak kolorezta ditzaten esango diegu.
3. Ikasle bakoitzak azalduko die gainerakoei bere familia nolakoa den.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Konturatu zarete zuen familiak oso desberinak direla?
- Zergatik gustatzen zaizu zure familia?
- Zein pertsonak zaintzen zaituzte zure familian?
- Zergatik da garrantzitsua zure familia?


Beste jarduera batzuk:

1. Zirkulu bat egin da gure familiak nolakoak diren komentatuko dugu.
2. Klasean beren historia kontatzera gonbidatuko ditugu ikasleen familiak.
3. Familian bizitzera jolastuko dugu alegiazko etxeak klasean eraikiz.
4. Familiaren argazkiak edo objektu sinbolikoak ekartzera gonbidatuko ditugu ikasleak, klasean euren historiak kontatzeko.
5. Bidaia-aren liburu bat egingo dugu. Orri zuriak dituen koaderno bat aukeratuko dugu. Egunero koadernoak familia baten etxera bidaiatuko du. Familia horrek bere historia bertan idatziko du eta biharamundean klasean irakurriko da.



4. Jarduera

Marrartu zein gauza gehiago eramaten dituen zorroan zure amonak



4. Jardueraren fitoa

Zure amonaren zorroa

Materialak:

- Ezko-koloreak.

Jarduerari sarrera:

Neska-mutilen bizitzaren zaintzan, arretan eta mantenuan oso zeregin garrantzitsua dute amonek. Ariketa honen bidez ikasleen bizitzetan duten balorea aitoren dezaten saiatuko gara.

Helburuak:

- Jarduera honen bitartez umeen bizitzetan amonek duten zeregina baloratuko dugu.
- Amonekin duten harremana beste pertsona batzuekin dutenarekin konparatuta zergatik den hain ezberdina hausnartzen lagunduko diegu.
- Amonen bizimoduaz eta eginkizunez hitz egingo dugu: beren etorkizuna, gustuak, ohiturak...

Jardueraren garapena:

1. Amonaren zorroaren fitxa banatuko dugu.
2. Amonengan, haiekin egiten dituzten gauzetan edota euren kezketan pentsatzea eskatuko diegu.
3. Arretaz begiratu eta amonak zorroan eramaten dituen beste objektu batzuk marraztu behar dituztela argitzen diegu.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Zergatik maite duzu zure amona?
- Zer eramaten du zorroan?
- Zer nolako gauzak egiten dituzu zure amonarekin? Eta zure aitona-rekin?
- Nora joaten zara zure amonarekin?
- Kaletik joaten zarenean, zure amonaren eskutik helduta joaten zara? Eta zure aitona-rekin?
- Nola du izena zure amonak?
- Zer nolako gauzak egiten ditu zure amonak eskolan zauden bitartean?
- Zer irakasten dizu zure amonak?

Beste jarduera batzuk:

1. Amona eta aitonei buruz mintzatzen gara.
2. Beren zorroetan daramatena erakusteko eta ipuin bat kontatzeko amonei klasera etortzea erregutzea eskatzen diegu ikasleei.
3. Amona edo aitona egitera jolasten dugu.
4. Amona eta aitona argazki pare bat (umeak zireneko bat eta gaur eguneko bat) ekartzea eskatzen diegu ikasleei eta umeen argazkien ondoan itsasten ditugu. Jarraian azal dezakegu pertsonak nola hazten diren.



5. Jarduera

"Printzesa erberdina" marraztu eta koloreztatu



5. Jardueraren fitoa

Printzesa ezberdina

Materialak:

- Kolorezko arkatzak.

Jarduerari sarrera:

Umeentzako ipuinak gizon eta emakumeei buruzko estereotipoez gainezka daude. Istorio horietako gehienek egoera pasiboan kokatzen dituzte emakumeak eta neskak, baina haiek salbatu behar dituen protagonista, gizonazkoa izaten ohi da gehienetan. Horrela gertatzen da Loti Ederrarekin, Errauskinerekin, Edurnezurirekin... Jarduera honen bitartez ipuina eraldatzen da berdintasuna neskontzat zein mutilentzat dibertigarri eta hunkigarria dela azalduz.

Helburuak:

- Emakume eta gizonen zeregina estereotipatzen duten ipuinak era kritikoan irakurtzen irakastea.
- Eredu dibertigarri eta aktiboak proposatzea haietan neskek nahiz mutilek erreflexua aurki dezaten.

Jardueraren garapena:

1. *Printzesa ezberdina* izeneko ipuina irakurtzea neska-mutilei.
2. Nolakoa den eta nola dagoen jantzita imajinatu behar dutela jakinaraztea ikasleei.
3. Kolorezko arkatzak erabiliz marrazkia bukatu behar dute.
4. Zergatik egin duten marrazki hori azaldu beharko dute.

Ipuina:

Bazen behin, duela urte gehiegirik ez eta oso urrun ez dagoen leku batean, Alba Aurora izeneko printzesa bat. Alba Aurorak adats beltz ederra zeukan, inork baino lehenago egunsentia ikusteko goizero eskalatzen zituen zuhaitzen adarretan ez nahaspilatzeke luzera nahikokoa. Alba Aurora oso sentibera eta maitagarria zen, baina oso bizkorra eta kirolzalea ere bai eta, gainera, larunbatero mendietara igotzera edo hondartzan kanpatzera joatea ikaragarri guztatzen zitzaion.

Egun batean zarata arraro bat entzun zuen lehioan. “Nor ote da?”, galdegin zion bere buruari. Printze Urdina zen, alajaina! Eta, azaldu zionez, bera askatzera zetorren. “Baina zertaz askatu behar nauzu?”, galdetu zuen Alba Aurorak. “Ez dakit”, erantzun zuen Printze Urdinak, nahiko desorekatuta, “beharbada azti gaizto batengandik edo umore txarreko dragoi batetik edo ogro erraldoi batengandik?”.

“Baina nik ez dut ezagutzen azti gaizto bat ere, ezta ogro erraldoirik eta, are gutxiago, umore txarreko dragoirik! Gainera, horrela izanez gero, nik neuk aurkitu nukeen askatzeko era”.


Printzea, egiteko ezer ez zeukala ikustean oso triste jarrita, leiho beretik jais-ten hasi zen, baina Alba Aurorak galdetu zion: “Ezagutzen duzu Txinako harresia?”. “Txinako harresia? Bada, ez!”, oihu egin zuen. Eta ezetz esaten bukatzen utzi gabe, printzesak besotik hartu zuen eta leihotik elkarrekin jaitsi, motorrera igo eta monumentu hori ezagutzera joan ziren.

Eta horrela printzesa ezberdina eta Printze Urdina mundua zeharkatzera joan eta lagunak egin ziren... Eta hala bazan ala ez bazan sar dadila kala-bazan, ipuin hau hasi baino ez da egin.



6. Jarduera

Ipuin bat kontatzen ari den ama eta mutikoa lotzen dituen bidea beltzez margotu. Neskatoa eta ipuin bat kontatzen ari den ama lotzen dituen bidea gorritz margotu



6. Jardueraren fitoa

Ipuinen bidea

Materialak:

- Kolorezko arkatzak.
- Fitxaren fotokopia.

Jarduerari sarrera:

Ipuinak kontatzen ditugunean hitzak oparitzen ditugu, eta hitzen elikadura janariarena edo ametsarena bezain garrantzitsua da. Ipuinek kulturarako parte bat ere dira eta haien bitartez zehatzak edo zirriborrotsuak izan daitezkeen baloreak transmititzen dira. Ipuinen istorioen bidez beldurak gainditzeko laguntzen diegu umeei, noiz fidatu eta noiz mesfidatu behar duten esaten diegu; bizitza ilusioz ikusten laguntzen diegu; sormena eta irudimena bizitzeko funtsezkoak direla esaten diegu. Baina, batzuetan, ipuinen bitartez kultura androzentrikoaren oinarriak sustatzea ere gerta daiteke. (Gai honetan sakon daiteke hezkidetzari buruzko kurtsu hau kontsultatuz: “Dos sexos en un solo mundo”, 2. modulua: “Nombrar a ambos sexos”, Emakumearen Institutua, Irakasleen Prestakuntza eta Sare-Baliabideen Institutua, Hezkuntza Ministerioa.)

Helburuak:

- Ipuinak entzutea lasaitasun eta sormenezko denbora gisa umeei baloratzea.
- Ipuinak entzutea gustatzeko arrazoiei buruz hausnartzea.
- Ipuin tradizionalekin jolastea, emakumezko eta gizonezko pertsonaientzako aukera ezberdinak eskainiz.

Jardueraren garapena:

1. Fitxak banatzea.
2. Nortzuei irakurtzen dizkieten ipuinak etxean galdetzea.
3. Ipuina irakurtzen duen pertsonarengana heltzeko bi bideak aurkitu behar dituztela jakinaraztea.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Zer nolako ipuinak dituzue gustukoak?
- Nortzuk dira ipuin horietako protagonistak?
- Ipuin batean bizitzea gustatuko litzaizueke?
- Non bizi dira ipuinetako pertsonaiak?

Beste jarduerara batzuk:

1. Ipuin ez sexistetako liburutegi bat sortzea klaserako.
2. Etxetik ekarritako jantzi eta oihalez betetako kutxa bat egitea.
3. Neskak eta mutilak protagonista gisa dituzten argumentuak proposatuko ditugu eta horietatik hasita mozorroetan eta ipuinak asmatzera jolastuko dugu.
4. Heroi emakumeak bilatzea ipuin tradizioaletan eta zergatik diren hain gutxi aztertzea.



7. Jarduera

Pasa erazu ezko zuria eskuilatzen ari den umearen hortzetatik. Margatu beste kolore batez eskuilatzen ari ez den umearen hortzak



7. Jardueraren fitoa

Neure burua zaintzen dut

Materialak:

- Ezko zuria edo kandela-zatiak.
- Akwarelak edo uretan disolbagarria den materialaren bat.

Jarduerari sarrera:

Tradizionalki emakumeak izan dira umeen zaintzaz arduratu direnak. Garbitasun, elikadura edo jarduera fisikoaren ardura haurtzaroan hasi behar da, auto-zaintzaren eta besteen zaintzaren kontzientzia duten pertsona arduratsuak izango dira horrela.

Helburuak:

- Zaintza eta garbitasunezko ohiturak mantentzeko garrantziaz jabe daitezen laguntzea.
- Etxean eta ikastetxean hartzen dituzten zaintzez kontzienteak izan daitezela.
- Zaintza pertsonalak lasaitasun eta zorientasuna ematen dizkigula uler dezaten laguntzea.

Jardueraren garapena:

1. Neska-mutilek ezko zuria edo kandela-zatia hortzak garbitzen ari den umearen hortzen gainetik pasatu beharko dute eta bestea dagoen bezala utzi.
2. Jarraian akwarelaz marrakia marraztu beharko dute eta ahoa osorik margotzeko kolorea aukera dezaten eskatuko diegu.
3. Horrela ikusiko dute hortzak garbitzen ari den haurraren hortzek zuriak izaten jarraitzen dutela (ezkoaz babestuta) eta bestearen ahoa zikin dago, haiek aukeratu duten koloreaz beterik.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Ikusi duzue zer gertatzen den marrazkian babestutako hortzekin eta babestu gabekoekin? Gauza bera gertatzen da zuen hortzekin, garbitzen ez badituzue seguruenez txantzarrez beteko zaizkizue, ahoak txarto usainduko du eta, azkenik, marrazkiarena baino aho zikinagoa edukiko duzue.
- Konturatu zarete hori zeuen burua zaintzeko oso era garrantzitsua dela? Zein beste ekintza egiten dituzue zeuen burua zaintzeko?
- Nork irakatsi dizue eskuak garbitzen, hortzak eskuilatzen edo pijama janzten? Zergatik irakatsi dizkizue gauza horiek guztiak?
- Zer gertatzen da geure buruaz kezkatzen ez garenean?

Beste jarduera batzuk:

1. Biribil bat eginez zein ekintza (dutxatzea, arropa beroak janztea, eta abar) egiten ditugun egunero geure burua zaintzeko azalduko dizkiegu.



8. Jarduera

Lotu plastilina-zerrenda batera mutikoak eta neskak beraien burua zaintzeko erabiltzen dituzten gauzak



8. Jardueraren fitoa

Nork zaintzen gaitu?

Materialak:

- 8. Jarduera inprimatuta duen orri bat (ume bakoitzak berea).
- Plastilina.

Jarduerari sarrera:

Gizaldi eta gizaldietan etxeko lana ez da zaintzaren eta bizi-kalitatearen parte inportantetzat jo. Gainera, emakumeei leporatu zaie lan horietaz arduratzea bestelako jarduerekin bateratu ezinean. Zorionez, azken urteotako aldaketek bidea ireki diote erantzukidetasunari eta etxean praktikan jartzen diren ezagupenak eta norberaren bizitzarekin eta maitatutako pertsonen zaintzarekin zerikusia dutenak gero eta baloratuagoak dira.

Helburuak:

- Ikasleak zaintzen dituzten pertsonak haiei ematen dizkieten atentzioak, denbora eta ekintzak hurrek balora ditzaten.
- Etxeko, zaintzeko eta atentziorako lanak gizonak zein emakumeek egin behar dituztela ulertzen lagunduko diegu.
- Zaintza, harremanak eta etxean egiten ditugun lanekin erlazionatutako ezagupenak den-denok ikasi behar ditugula azalduko diegu, egunen batean, nagusiak izango direnean, mutilek nahiz neskek jarduera horiek egin beharko dituztelako.

Jardueraren garapena:

1. Nortzuek zaintzen dituzten etxean galdetuko diegu neska-mutilei.
2. Jarraian, zer nolako gauzak erabiltzen ditugun geure burua zaintzeko galdetuko diegu: xaboia, janaria...
3. Fitxaren objektuetan arreta jartzea eskatuko diegu.

4. Elikatzeko, garbitzeko, jolasteko... erabiltzen ditugunak zerrendatuko ditugu.
5. Plastilinazko zizareak egitea eskatuko diegu.
6. Zerrendatu dituzten objektu bakoitza fitxaren erdian dauden neska edo mutilarekin lotzea eskatuko diegu.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Pertsona berberak zaintzen zaituzte beti?
- Nork zaintzen zituen zure ama eta zure aita umeak zirenean?
- Inoiz eman dizkiezue eskerrak zuek zaintzeagatik?
- Zuen ustez, garrantzitsua da haiek egiten dutena?
- Zer oparitu ahal diegu eskerrak emateko?
- Nola adierazten dugu gure maitasuna haiek gu zaintzeagatik?


Beste jarduera batzuk:

1. Klaseko bazterretan familian bizitzera eta etxolak egitera jolastea, zaintzako funtzioak ikasleen artean banatuz.
2. Aitak klasera gonbidatzea etxeaz eta zaintzez nola arduratzen diren kontatzeko. Horrela erreferente maskulinoak edukiko dituzte.
3. Sukaldaritza tailer bat egitea aita-amekin.
4. Etxetik objektu bat ekar dezaten eskatu, objektu guztiak kutxa batean sartu eta biribilean jesartzea. Banan-banan, ikasle guztiak biribilaren zentrorra irtengo dira eta, begiak itxita, kutxatik objektu bat aterako dute. Zertarako den eta nola erabiltzen den azaldu beharko dute.



9. Jarduera

Marrartu zure aurpegia eta koloreztatu gustukoen dituzun lanbideak



9. Jardueraren fitoa

Lanbideak

Materialak:

- Errotuladoreak edo kolorezko arkatzak.

Jarduerari sarrera:

Datuen arabera, tradizionalki emakumeek edo gizonek betetzen zituzten karrera eta ikasketa askotan egoera parekatzen ari da eta bi sexuek beteta egotera jotzen da; hala ere, oraindik daude neskek edo mutilek nagusitzen dituzten arloak. Esate baterako, irudi pertsonala, osasuna, giza arreta edo hezkuntzarekin erlazionatutako ikasketetan neskak gehiengo dira; halaber, mutilek elektrizitatea, kotxeen mekanika edo telekomunikazioak aukeratzen ohi dituzte. Datu hauek ikusita geure buruari galde diezaiokegu aukera profesionalak benetako askatasunez hartzen diren ala ez. Oso txikiak direnetik neska edo mutilentzako lanbide espezifikorik existitzen ez direla uler dezaten saiatu behar dugu, euren gaitasun, lehen-tasun eta esperantzei dagozkien posibilitate ugari baizik.

Helburuak:

- Sexuak garrantzirik eduki gabe, haien gustu eta gaitasunen araberako edozein lanbide hautatu ahal dutela jabe daitezen neska-mutilak.
- Emakumei edo gizonei lanbide zehatz batzuk esleitzen dizkieten estereotipoak suntsitzea.

Jardueraren garapena:

1. Fitxan agertzen diren lanbideak zerrendatzea.
2. Gustukoen duten lanbidea aukera dezaten eskatzea haurrei.
3. Kolorezko arkatzez aukeratutako pertsonaia marraz dezaten.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:


- Zertan lan egin nahi dute neskek? Eta mutilek?
- Egin dezake neska batek mutil batek egiten duen berbera?
- Izan daiteke neska bat astronauta? Eta Gobernuaren presidentea? Izan daitezke emakumeak igeltseroak edo mekanikariak?
- Izan daiteke mutil bat ile-apaintzailea? Eta maisua?
- Zaindu behar dituzte aitek haurtxoak?

Beste jarduera batzuk:

1. Tradizionalak ez diren eremuetan lan egiten duten gurasoei eskatuko diegu esperientzia kontatzera klasera joan daitezen. Adibidez, zuzendari emakumeak, igeltsero emakumeak, eta abar.
2. Ama edo aitaren baten lantokia bisitatuko dugu hango langileekin hitz egiteko.
3. Beren generorako ezohikoak diren lanbideetan lan egiten ari diren pertsonak erakusten dituzten argazki multzo bat eramango dugu klasera eta haurrei galdetuko diegu haien ustez zein lanbidetan ari diren. Pertsona horiek egiten ari diren lanbideak estereotipoak apurtzeko lagungarriak izatea garrantzizkoa da, adibidez suhiltzaileak edo astronautak diren emakumeen argazkiak eta idazkariak edo erizainak diren gizonenak.

10. Jarduera

Ordenatuta dagoen gela koloreztatu



10. Jardueraren fitoa

Nire gela

Materialak:

- Kolorezko arkatzak.
- Fitxaren fotokopia.

Jarduerari sarrera:

Gizon eta emakumeen artean etxeko lanen banaketan jokabide eredu berriak garatu eta sustatzea eta aipatutako zeregin horietan neska-mutilak inplikatzeko oso garrantzitsua da, generoak ezarritako edonolako desberdintasunak saihestuz. Modu horretan familiako taldean denok partaide garrantzitsuak garela eta gure ahalmenen arabera parte hartu behar dugula konturatzen lagunduko dugu, lan parekotasuneko planteamendu bat sustatzea faboratuz.

Helburuak:

- Genero ezberdintasunik gabeko autonomia pertsonala sustatzea haurrengan.
- Familiar parte hartzearen garrantzia eta beharra azaltzea haurrei.
- Neska eta mutilen artean giza-erantzukizunak bultzatzea.

Jardueraren garapena:

1. Fitxak bi gela ditu koloreztatze eta, jarraian, bien arteko bost ezberdintasunak aurkitzeko.

2. Jarduera egin ondoren zein gela duten gustuko eta zein den haien gelaren antzekoena komentatu beharko dute. Halaber, gela zikin eta desordenatua garbi eta ordenatutik bereizten dituen gauzak haien etxeetan nork egiten ohi dituen galdetuko diegu. Esaterako: nork desordenatzen ditu jolasak eta nork ordenatzen ditu?, nork egiten du lo ohean eta nork egiten du?, nork uzten du zaborra lurrean eta nork batzen du?, eta abar

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Zuen etxeetan den-denok laguntzen ohi duzue edo badaude inoiz ezer egiten ez dutenak? Zuen ustez, bidezkoa da hori?
- Badaude zuen etxeetan emakumeek soilik edo gizonek eksklusiboki egiten dituzten zereginak? Zergatik?
- Zer deritzozue beste pertsonak egon arren batzuek soilik lan guztia egiteari, gainerakoak ezer egin gabe geraturik? Zergatik gertatzen da hori? Zertan laguntzen duzue edo, zuen ustez, zertan lagundu ahal izango zenukete?


Beste jarduera batzuk:

1. Astearen hasieretan biribilean elkartuta zertan laguntzen duten etxean egunero azalduko dute eta zertxobait gehiago egitea proposatuko da. Dibertigarriago egiteko bakoitzak proposatzen duena ezin izango da izan besteek proposatu dituztenetako bat. Eta astea bukatzean zer egin duten komentatuko dute.



11. Jarduera

Bikoteka jolasten ari diren umeak dituzten eszenak plastilinaraz inguratu



11. Jardueraren fitoa

Bikoteha jolastea

Materialak:

- 11. Jarduera inprimatua duen orri bat.
- Plastilina.

Jarduerari sarrera:

Errespetu, elkarrizketa eta besteen onarpenean erlazionatzen ikasteko gune egokia da eskola. Ikasleek askatasunez adierazi eta nahiago dituzten gaitasun eta jarrerak gara ditzaten oso garrantzitsua da, baina tradizionalki beste sexuak praktikatzen dituen jolasak frogatzera ere gonbida ditzakegu elkarrizketan aritzen, gatazkak era baketsuan konpontzen eta ikaskideekin harreman ez bortitzak ezartzen irakasten diegun bitartean. Elkarbizitzako gunea da eskola haurrentzat; bertan bizikidetzatza, solidaritatea eta elkarrizketazko baloreak indartu eta eraikitzen dira. Eskolan transmititzen diren mezuak funtsezkoak dira umeen garapenerako eta giro horretan gerta daitezkeen era ezberdinetako gatazkak konpontzeko baliabideak ematea umei garrantzi handikoa da, pazientzia handiagoko umeak eta komunikatzen, entzuten eta taldean lan egiten dakitenak sortuz.

Helburuak:

- Elkarren arteko trukaketa eta aitortzearen oinarritutako harremanak faboratuko ditugu umeen artean.
- Neska-mutileen arteko taldeko lana sustatuko dugu.
- Hurrei adierazten eta entzuten ikasten uzten dien komunikaziozko giroa sortuko dugu, komunikazio hori bideratzen jakinik elkar ulermenaren faboratzen dituzten ondorioetara helduz.

Jardueraren garapena:

1. Eszenak behatu eta zer ikusten duten kontatzea eskatuko dizkiegu neska-mutilei.

2. Elkarrekin jolasten ari diren umeak dituzten eszenak inguratuko ditugu plastilinaz.

Taldean/klasean mintzatu eta hausnartzeko:

- Zergatik oihukatzen dugu haserretzen garenean mintzatu beharrean? Joan zaitezke ohera haserre zaudelarik?
- Zergatik egiten ditugu bakezkoak? Nolakoa da haserre egotea? Zer gertatzen da adiskidetasuna apurtzen denean? Zer sentitzen da? Zer sentitzen da adiskidetasuna berregiten denean?
- Zein arrazoiengatik haserretzen ohi gara?
- Zergatik da dibertigarria beste pertsona batekin jolastea? Zergatik da dibertigarria bakarrik jolastea?

Beste jarduera batzuk:

1. *Adiskidetasun ikusezina*. Egin ezazue oparitxo bat haserre gauden taldeko pertsona bati, nor eman dion esan gabe.
2. *“Des-haserre”-en zerrenda*. Idatz ezazue zerrenda bat haserre egoteari uzteko gustatzen zaizkigun keinuekin.
3. *Besarkadak*. Neskek eta mutilek ikasgelatik korrika egingo dute. Jada! Esaten dugunean beste neska edo mutila besarkatuko dute emozio ezberdinak adierazteko. Klasetik korrika egiten hasi baino lehen jarraibideak emango ditugu: aspalditik elkar ikusiko ez bagenu bezala besarka ezazue, konpromisoz besarka ezazue, kontuz eta samurtasunez besarka ezazue, agurtu beharko bagenu bezala besarka ezazue.
4. *Kode sekretuak*. Taldeak soilik ezagutzen duen kode bat asma ezazue. Kode hori bakezkoak egiteko erabiliko dugu.
5. *Asanbladak*. Asanbladen saioak egin itzazue gatazkak taldean konpontzen ikasteko.

Berdintasunean Hezten

Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren laguntzaz FETE-UGTk egindako programa

Zergatik egin kanpaina bat berdintasunean hezteko?

Dudarik gabe, berdintasunean erlazionatzen ikasteko leku pribilegiatutako bat ikastetxeak dira. Elkar hobeto ezagutu, beste aitorpenean oinarritutako harremanak eduki edo konplizitatetik komunikatu eta emakume edo gizon gisa ditugun eskubideak ezagutzera eramaten gaituzten esperientzia berriak konpartitzen ditugu ordu batzuez egunero. Giden, tailerren eta web orriaren bitartez (www.educandoenigualdad.com), bititza berdintasunean konpartitzeak zer esan nahi duen hausnartu eta ikertzen lagundu nahi dizuegu kanpaina honetan.

Non gehi ditzaket gidaren edukiak?

www.educandoenigualdad.com web orrian gai bakoitzari buruzko bibliografía komentatua aurkituko duzu. Gainera beste atal interesgarri asko ere aurkituko dituzu: gelan berdintasuna lantzeko gida didaktikoak, bideoak, hezkidetzazko-hiztegiak, hizkuntza ez sexistaren gida bat eta *on-line* baliabideak.

Zertan datza 'Berdintasunean Hezten' kanpaina?

Hizkuntza ofizial guztiez egindako bost gida argitaratu ditugu kanpainarako. Gida hauek dohain banatuko dira. Horretaz gain, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako prestakuntza-tailerrak ere egingo ditugu ikastetxeetan. Irakasleentzat hezkidetzako ikastaroak egingo ditugu. www.educandoenigualdad.com web orriaren bitartez jarrai dezakezue kanpaina.

Eta zalantzak argitu edo informazioa eskatu behar badut?

Berdintasuna eta hezkidetzari buruzko aholkularitza bat duzue zuen eskura www.educandoenigualdad.com web orrian zuen galdera eta eskakizun guztiei erantzuteko. Kanpainaren baliabideei buruzko galderak helbide elektroniko honi bidal diezazkiokezue: info@educandoenigualdad.com